GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

126/2023 Foru Agindua, martxoaren 18koa, lehen lizitazioan egindako enkante bidezko besterentze prozeduretan eskaintza elektronikoen aurkezpena arautzen duena.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 103. artikuluaren 4. apartatuan xedatzen du interesdunek bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliz parte hartu ahal izango dutela enbargatutako ondasunak besterentzeko prozeduretan, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez onartzen diren baldintzei jarraituz.

Era berean, erregelamendu bereko 104. artikuluak 1. apartatuan dio zerga-bilketako organoari dagokiola Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 176.1 artikuluan aipatzen duen besterentze erabakia hartzea, enbargatutako ondasunak saltzeko agindu eta salmenta noiz eta non izango den eta lizitaziorako enkante neurria zein izango den adieraziz. Hala badagokio, bide telematikoz parte hartzeko aukera ere adieraziko du.

Parte hartzeko era hori enbargatutako ondasun eta eskubideak enkante bidez besterentzea xede duten premiamenduzko administrazio prozeduretan gaitu ahal izan dadin, beharrezko gertatzen da hura ahalbidetzen duten gutxieneko baldintzak arautzea lehen lizitazioan, parte hartze hori ahalik eta irekiena eta egingarriena izan dadin, baita enkantea egiten den lekutik urrun parte hartzen duten interesdunentzat ere.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

Foru agindu honen xedea da arautzea zer baldintza hartu behar diren kontuan bitarteko elektronikoz parte hartzen denean enkante bidez besterentzeko prozeduretan, enkantearen lehen lizitazioan bereziki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 103. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoarekin bat.

2. artikulua. Besterentzeko erabakiak bitarteko elektronikoen bidez parte hartzeko aukera ematea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 104. artikuluaren 1. apartatuan aipatzen duen besterentze erabakiak baimenduko du eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahal izatea enbargatutako eta/edo hipotekatutako ondasunen enkantearen lehen lizitazioan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan irekitako premiamenduzko prozedura administratiboaren barruan.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 126/2023, de 18 de marzo, por la que se regula la presentación de ofertas por medios electrónicos en los procedimientos de enajenación mediante subasta en primera licitación.

El Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, dispone en el apartado 4 de su artículo 103 que los interesados podrán participar en los procedimientos de enajenación de los bienes embargados a través de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en las condiciones que se aprueben por orden foral del diputado o diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Así mismo, el apartado 1 del artículo 104 de dicho reglamento establece que el órgano de recaudación dictará el acuerdo de enajenación referido en el artículo 176.1 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ordenando la venta de los bienes embargados y señalando día, hora y lugar en que habrá de celebrarse, así como el tipo de subasta para licitar. Señalará, en su caso, la posibilidad de participación por vía telemática.

La habilitación de la mencionada forma de participación en los procedimientos administrativos de apremio donde se enajenen bienes y derechos embargados mediante subasta, exige regular las condiciones mínimas, en primera licitación, que posibilitan la misma, de forma que dicha participación sea lo más abierta y factible incluso para los interesados o interesadas que lo hagan desde lugares alejados al de la celebración de la subasta.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

La presente orden foral tiene como objeto regular las condiciones de participación por medios electrónicos en los procedimientos de enajenación mediante subasta, en particular en la primera licitación de la misma, en cumplimiento de lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 103 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

Artículo 2. Acuerdo de enajenación que permita la participación por medios electrónicos.

Será el acuerdo de enajenación al que hace referencia el apartado 1 del artículo 104 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, el que autorice la posibilidad de presentar ofertas por medios electrónicos en primera licitación de la subasta de bienes embargados y/o hipotecados, dentro del procedimiento administrativo de apremio seguido en el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2023-02104

3. artikulua. Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko modua.

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako dagoen zerbitzua erabili beharko da. Helbidea: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean enkanteari buruz argitaratzen den iragarkian helbide elektroniko hori adieraziko da.

Publizitate hori Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean ere jarri ahal izango da, https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna helbidean.

Horretarako, interesdunek edo haien ordezkariek beren burua identifikatu beharko dute ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan aurreikusitako moduetako batean (320/2017 Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duena).

Legezko ordezkaritza eta ordezkaritza korporatiboa izango dira hirugarrenen izenean jarduteko balioko duten ordezkaritzak, eta haien edukia «ondorio guztietarako» izango da. Legezko ordezkaritza Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien errolda arautzen duen urriaren 28ko 573/2014 Foru Aginduan ezartzen da. Ordezkaritza korporatiboa Gipuzkoako Foru Aldundiko borondatezko ordezkarien errolda korporatiboa arautzen duen azaroaren 4ko 881/2014 Foru Aginduan ezartzen da.

4. artikulua. Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko baldintzak.

Eskaintzak lehen lizitazioan aurkezteko bitarteko elektronikoak erabilita, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduaren 106. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar den dokumentazioak egiaztapen kode seguru bat edo antzeko formula baliodun bat eduki beharko du, dokumentu hori jatorrizkoarekin fidelki bat datorrela edo jatorrizkoarekin erkatutako kopia bat dela egiaztatzeko.

5. artikulua. Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ondorengo izapideak.

Enkantearen lehen lizitazioan eskaintzak elektronikoki aurkeztu ondoren besterentze prozeduran egin beharreko jarduketak abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduak 106. artikuluan eta haren hurrengoetan xedatutakoari jarraituz gauzatuko dira.

6. artikulua. Lizitatzaileen datu pertsonalen tratamendua eta aurkeztutako eskaintzak.

Enkantearen lehen lizitazioan parte hartzen dutenek enkantean parte hartzen duten pertsona guztien nortasuna ezagutuko dute, baita haietako bakoitzak aurkeztutako eskaintzak ere.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2023ko marxoaren 18a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (2104)

Artículo 3. Forma de presentación de las ofertas por medios electrónicos.

La presentación de ofertas por medios electrónicos se efectuará a través del servicio incluido al efecto en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en la dirección https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/inicio.

En el anuncio de la subasta que se publique en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, se incluirá dicha dirección electrónica.

Dicha publicidad también podrá ser objeto de inclusión en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas, en la dirección https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna.

A tales efectos, las personas interesadas, o sus representantes, deberán identificarse por alguna de las formas previstas en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

Las representaciones válidas para actuar en nombre de terceros serán la representación legal y la corporativa con el contenido «a todos los efectos». La representación legal se establece en la Orden Foral 573/2014, de 28 de octubre, por la que se regula el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa. La representación corporativa se establece en la Orden Foral 881/2014, de 4 de noviembre, por la que se regula el censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Artículo 4. Condiciones de presentación de las ofertas por medios electrónicos.

La presentación de las ofertas por medios electrónicos en primera licitación se ajustará a lo dispuesto en el artículo 106 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

La documentación a presentar por medios electrónicos deberá contener un código seguro de verificación o fórmula válida análoga que permita constatar que dicho documento responde fielmente a un original o a una copia cotejada con su original.

Artículo 5. Trámites posteriores a la presentación de ofertas por medios electrónicos.

Las actuaciones del procedimiento de enajenación posteriores a la presentación por medios electrónicos de ofertas en primera licitación de la subasta se realizarán de conformidad con lo dispuesto en los artículos 106 y siguientes del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

Artículo 6. Tratamiento de datos personales de los licitadores y ofertas presentadas.

Quienes participen en la subasta en primera licitación conocerán la identidad de todas las personas participantes en la misma, así como las ofertas presentadas por cada una de ellas.

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 18 de marzo de 2023.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (2104)

EK\CV GAO-I-2023-02104